



EBAZPENA, 2025eko martxoaren 3koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Ebazpen honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren menpe dauden Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen, desagertzeaz dauden Lanbide Heziketako irakasle Teknikoen Irakasleen, Hizkuntza-Eskola ofizialetako Katedradun eta Irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoko Katedradun eta Irakasleen, Arte Plastiko eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoetako funtzionarioen arteko 2024/2025eko, estatu mailako, lekualdatze-lehiaketako destinoen behin-behineko esleipena argitaratzen da.

Hezkuntza sailburuaren 2024ko urriaren 25eko aginduak (2024ko azaroaren 4koa EHAA), Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen, desagertzeaz dauden Lanbide Heziketako irakasle Teknikoen Irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasleen, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoetako funtzionario irakasleen artean 2024/2025eko ikasturtean, estatu mailako, lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak, hogeitaseigarren oinarrian xedatutakoaren arabera, eta parte hartzen duen pertsonalari emandako behin betiko puntuazioak kontuan hartuta, behin-behineko destinoak esleitu dira.

Horregatik, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen, desagertzeaz dauden Lanbide Heziketako irakasle Teknikoen Irakasleen Hizkuntza-Eskola ofizialetako Katedradun eta Irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoko Katedradun eta Irakasleen, Arte Plastiko eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoetako funtzionarioen arteko 2024/2025eko, estatu mailako, lekualdatze-lehiaketako destinoen behin-behineko esleipena argitara ematea.

Bigarrena.- Erreklamazioak aurkezteko eta destinoei uko egiteko epea irekitzea, 2025eko martxoaren 5etik martxoaren 11ra, biak barne.

Hirugarrena.- Erreklamazioa aurkeztu edo uko egitea ondorengo Interneteko helbide honen bidez egin behar da, adierazitako epean <https://hezigunea.euskadi.eus>. Eremu pertsonala / Izapideak langileen sailarekin / Lekualdatze-lehiaketa / Behin-behineko esleipenaren aurkako erreklamazioa edo lekualdatze-lehiaketan parte hartzeari uko egitea.

**UNAI NIETO MARIJUAN
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteizen, 2025eko martxoaren 3an